

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, BERDINTASUN-ORDENANTZARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, berdintasun ordenantzari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, ekainaren 17an PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 17an batzordean adierazi genuen moduan, aspalditik azpimarratu dugu beharrezkoa dela berdintasun-ordenantza bat izatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna udal-eremuko beste gai batzuen maila berean kokatzeko, hala nola hirigintzaren, hondakinen bilketaren edo beste gai batzuen maila berean.

Era berean, Berdinsareak, Emakundek eta Eudelek bultzatutako emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako EAEko udalerrien sareak, uste du udalerriek berdintasun-ordenantzak izan behar dituztela. 2012tik ordenantza hori egiteko gida bat egina dute: «EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza». Gipuzkoan, Tolosa edo Zarautz bezalako udalerriek berdintasun-ordenantzak dituzte. Bilbok 2018az geroztik dauka onetsita.

Ilido horretan, duela bi legegintzaldi eta gure ekimenez, Udal honek berdintasun-ordenantza bat landu zuen. Ordenantza horrek Berdintasun Kontseiluaren eta Udaleko atalen ekarpenak izan zituen, baina ez zen onetsi, ez zuelako beharrezko bultzada politikoa izan.

Jakin badakigu dokumentu hori eguneratu egin dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Lege berria kontuan hartuta. Beraz, Udal Gobernuak borondate politikoa badu, ez litzateke inolako oztoporik egon behar Donostiak ere berdintasun-ordenantza bat izateko.

Era berean, gogorarazi nahi dugu, 2024ko aurrekontua izapidetzean eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa bat onartu zela, hain zuzen ere berdintasun-ordenantzaren onarpenari buruz aurkeztu genuena.

Era berean, dagoeneko bete egin dira Berdintasun Ataleko langileei buruzko zinegotzi ordezkariak martxoan aipatu zituen inguruabarrak, hain zuzen ere gai horri buruz ere hitz egin genuenean: zinegotzi ordezkariak hilaren 17ko batzordean aitortu zuenez, enplegu publikoa egonkortzeko prozesuak amaitu dira Berdintasun Atalean, eta orain bost pertsona ari dira jardunean, lanaldi osoan, Berdintasun Atalean.

Hilaren 17ko batzordean, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen ordenantza-proiektuaren zirriborroa urte amaierarako prest egongo zela, eta, ondoren, izapideak 10-11 hilabete inguru iraungo zuela. Hala ere, zirriborroa eginda dagoenez, ez dugu ulertzen zergatik atzeratu behar den denbora gehiago haren izapidetzea.

Horiek horrela direla, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio uztaila amaitu baino lehen kronograma zehatz bat aurkez dezala, berdintasun-ordenantza behin betiko onartzeko beharrezkoak diren izapide guztiekin.

Arantza González García,

Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko zinegotzia.